



ZAHARRAK BERRI



Oihana
Iguaran
Barandiaran



Doinua:

*Manuel narruk atzo esan dit C
Zortziko handia*



Esaera zaharrekin eta esamoldeekin jolastuko gara. Zerrenda honetan ageri direnak baliatu ditu Oihana Iguaranek bere bertsoetan. Ea aurkitzen ditugun! **Azpimarratu** ditzagun bertsoetan.

ESAERA ZAHARRAK ETA ESAMOLDEAK

- 1-Lagun onekin, orenak labur
- 2-Ez zerurako eta ez lurrerako
- 3-Alferrik da ura joanda gero presa egitea
- 4-Ardi galdua atzeman liteke, aldi galdua aldiz ez
- 5-Bakoitzak bere astoari arre
- 6-Astarrak umea egingo din/k, hik hori egiterako!

- 7-Inor ez da jakinda jaiotzen
- 8-Azkar eta ondo, usoak hegan
- 9-Katua falta, saguak dantza
- 10-Eskuak garbitzea baino, ez zikintzea hobe!
- 11-Gutxi ikasia, beti jakintsu
- 12-Zer ikusi, hura ikasi

Anerentzako matematika da asperduraren ikur lagun onekin egiten dira klaseko orduak labur baina esamin batek dauka gaur bere emaitzaren beldur nahiko bat lortu eta geratu da ez zero eta ez lur.

Nasimek dena ikasi zuen ta lasai egin du barre baina Raulek nahiko lan du ta begiratzan du hasarre baina badaki bakarrik egin beharko diola aurre bakoitzak egin behar diola bere astoari arre.

Irakasleen ordutegiak ez izan arren malguak errepideko kola batean geratuz gero salduak ikasleentzat festa bat dira klaseko ordu galduak katua falta den etxeetan dantzan dabilta saguak.

Irakasleak abiatu du aholkuen tramitea: "hobe duzue oraintxe bertan liburuei ekitea". Raquelek azkar erantzun dio: "komeni da jakitea: ura joanda alferrik dela urtegia egitea".

Mireni beti kosta zaizkio hainbat aditz euskerako eta Judithek bere ondolik esan du iristerako: "astarrak baietz umea egin hik hori ikasterako!". "Inor jakinda ez da jaiotzen" erantzun du, hasterako.

Jolasgaraiaren haserretuta barkamen bila onbera ordu erdia pasatu dute egiterako hobera; gelarakoan atera dute biek ondorio bera: esku-garbitzen aritu baino ez zikintzea hobe da.

Ta bihar beste azterketa bat ondo dakite oroitzez garaiz prestatu ez duten hoiek konpondu nahia oitotzez ... aste osoan ikasi ez dena ezin da ikasi goizez ardi galdua atzematen da, aldi galdua inoiz ez.

Ikerrek lana bukatzerako beste sei dauzka ileran irakasleak "mugitu hadi" dio presatien eran. Bere amonak dioen gisan azaldu dio primeran: "azkar ta ondo egiten dula bakarrik usoak hegan"

Gutxi ikasi duen pertsona beti jakintsu omen ba, guk jakin-minez osatzen dugu gure galderen zerrenda. Lagunartean urratzen dugu erantzunen bila xenda azkenerako eskolan ere ikusia ikasten da.